

Kanalak

Gure produktuaren kontrola eduki nahi dugunez, bezeroak oszilatzaile honen berri nola jasotzen dun puntutik (zer den, zertarako balio duen, bere beharra nola ikustarazten zaion...) salmenta ondorengo zerbitzuraino zehatz mehakzi jakin behar dugu nola burutzen den.

Bezero potentziaiek sare sozialetan jasotzen duten publizidade eta publikazioen bitartez jakingo dute.

Produktua erosteko hainbat kanal ezberdin baliatuko dira, propioak edo kanpokoak izan daitezkenak. Era zuzenenean enpresaren web orritik edo sare sozialetatik egin daiteke, baita fabrikara bertaratuz ere. Bitarkekari bat erabiliz, aldiz, web gune ezberdinen bitartez (saltzaile baimenduen web orriak edota amazon; jakina sarean egiten diren salmentak garraio enpresa bitartez helduko dira bezeroarengana) edota banatzaile ofizialak izango diren enpresen denda fisikoak.

Erosleari ematen zaion arreta edo komunikazioa, erosi aurretik dituen kezkak argitzeko edota erosi ondorengo zalantza eta beharrei aurre egiteko ere internet (webgune edota sare sozial), posta elektronikoa edota telefonoa erabiliko dugu eta bezeroak aurrez aurreko arreta nahi izan ezkeru bulegora bertaratzeko aukera ere izango luke.

